

ARETXABALETA TOKIKO AGENDA 21

IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA

IRAUNKORTASUNERAKO UDAL EKINTZA PLANA



2006ko Otsaila

IRAUNKORTASUNERAKO UDAL EKINTZA PLANEAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Aretxabaletako Udala

Arritxu Oliden. Alkatesa
José Angel Antxia. Tokiko Agenda 21eko Zinegotzi arduraduna
Iñaki Saenz. Zinegotzia
Xabier Sarasua. Zinegotzia
Aitziber Mendigain. Tokiko Agenda 21 Teknikari Koordinatzailea
Begoña Arenaza. Gizarte Zerbitzu Teknikaria
José Mari Segovia. Hirigintza Teknikaria
Asier Mujika. Kirol Teknikaria
Ane Loren Estola. Euskera Teknikaria
Inma Miguel. Kultura Teknikaria
José Ramón Urrutia. Zerbitzu Teknikaria
Begoña Arenaza. Kontu Hartze Teknikaria

Aholkularitza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, S.A.

Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
José Luis Pérez. Teknikaria
Ane Bustinduy. Teknikaria
Ibón Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria

0. AURKIBIDEA	
1. AURKEZPENA	4
2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA	5
3. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA	15
3.1 HELBURUAK	15
3.2 EGITURA ETA EDUKIAK	16
3.2.1 EKINTZA-PLANAREN EGITURA	16
3.2.2 EKINTZA-PLANAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK.....	16
3.2.3 KARAKTERIZAZIO EKONOMIKOA ETA EKINTZAK BURUTZEKO ERANTZUKIZUNA.....	21
3.3 ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZEN LABURPENA, ETA HELBURUEN LEHENTASUNA.....	23
3.4 EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK.....	31
4. EKINTZA-PLANAREN SEGIMENDUA	111
4.1 AURKEZPENA.....	111
4.2. IRAUNKORTASUNERAKO ADIERAZLEEN SISTEMA.....	111
4.2.1 EZAUGARRIAK.....	111
4.2.2 HAUTATZEKO IRIZPIDEAK	111
4.2.3 METODOLOGIA-ERREFERENTZIAK	112
4.2.4 PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN SISTEMA.....	112
4.2.5 ADIERAZLEAK DESKRIBATZEKO FITXAK.....	114

1. AURKEZPENA

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa garatu ondoren Aretxabaletako udalerriak dituen arazo eta mehatxu nagusiak hautatzen dira, eta baita dituen indar eta aukera nagusiak, Tokiko Aghena 21 edo Iraunkortasunerako Ekintza Planean azaltzen diren irizpideak jarraituz.

Udalerrriaren Diagnostiko honetatik habiatuz , dokumentu honetan azterketa horri erantzuna ematen dioten helburu eta ekintzak biltzen dira, eta udalerriko garapen iraunkorrago baterantz aurre egitea dute helburu nagusizat.

Jarduteko helburu bilduma, eta berauetara heltzeko proposaturiko ekintzak Aretxabaletako Iraunkortasunerako Ekintza Plana bezala deitutako dokumentua bildu eta antolatzen dira, udalerrian Tokiko Agenda 21 prozesuaren oinarrizko elementua.

Dokumentu honek Iraunkortasunerako Diagnostikoa eta Ekiteko helburuen arteko lutura egitea du helburu, hauetan lehentasunak ezartzea, Iraunkortasunerako Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza egitea, eta Iraunkortasun Adierazleen Sistema aurkeztu eta deskribatzea, ezarpen prozesua jarraitu ahal izateko.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerriak kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planean geroago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANA

Aretxabaletako Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenez, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

EKINTZA- PLANAREN SEGIMENDUA

Eskema moduan, Aretxabaleta udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpenerako garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Azterketako eremu desberdinetan definitutako Diagnostikoko elementuetatik aurrera, ondoko orrialdeetan Iraunkortasunerako Ekintza-planaren esparruan garatzekoak diren jarduteko programen identifikazioari ekiten zaio.

Datozen orrialdeetan Diagnostikoko elementuak eta lotuta dituzten iraunkortasun-helburuak taulen moduan erakusten dira, aztertutako gai desberdinen arabera egituraturik:

- ? Inguru sozial eta ekonomikoa
- ? Ingurune fisikoa eta sistema naturalak
- ? Lurralde antolamendu eta hirigintza planeamendua
- ? Mugikortasuna eta garraioak
- ? Ura
- ? Hondakinak
- ? Energia
- ? Atmosfera
- ? Lurzorua
- ? Zarata
- ? Jarduera Ekonomikoen eragina
- ? Ingurumen arriskua
- ? Ingurumen sentsibilizazio eta partaidetza
- ? Udal ingurumen kudeaketa

Gai bakoitzari dagokionez, Diagnostikoko Elementuen hasierako zerrenda bat erakusten da, bi zutabetan egituratuta: alde batetik, kontuan hartutako gaiaren Diagnostikoko Elementuen multzoa; eta bestetik, erlazionatuta dauden iraunkortasun-helburuak.

Diagnostikoko zenbait elementu desberdinen artean dagoen lotura estua dela eta, kasu batzuetan horiek multzokatzea erabaki da, eskuineko zutabearen planteatutako programak elementuen multzo oso bati lotuta egonik.

Iraunkortasun-helburuak *Ekintza-Programak* bihurtuta aurkituko ditugu 3. kapituluan, lldo Estrategikoetan edo helburu orokor handietan kokatutako helburu zehatzen antzera. Halaber, Programa bakoitza Planaren ekintza zehaztuetan adarkatuko da.

DIAGNOSTIKOKO TAULAK-JARDUTEKO HELBURUAK

INGURU SOZIO-EKONOMIKOA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<p>✍ 2004. urtean, Aretxabaletan 6.281 lagun bizi ziren, eta azkenengo 15 urteetan bertako biztanleriak pixkanakako hazkunde arina izan du.</p> <p>✍ Biztanleriak nolabaiteko zahartzea izan du, baina Debagoienan eta Gipuzkoan baino baxuagoa. 1986-2001 epean, 20 urtetik beherako biztanleria 13 puntu jaitsi da, eta 65 urtetik gorakoen multzoa ia 7 puntu handitu da.</p> <p>✍ Egitura demografiko honetan gizonezkoen presentzia (%50,9) emakumezkoena baino handiagoa da (%49,1).</p> <p>✍ 1996-2002 epean, berezko hazkundera positiboa izan da; beraz, jaiotze-tasa heriotza-tasa baino handiagoa da.</p> <p>✍ Migrazio-mugimendua, barruko zein kanpoko, positiboa da.</p> <p>✍ 2003an, establezimenduen %37,2 Merkataritza, ostalaritza eta garraioak adarrekoa zen; %18,6 Bestelako Zerbitzuen jarduerak adarrekoa; %18,3 Industria eta Energia alorrekoa, %13,5 Bankuak, aseguru-etxeak eta enpresentzako zerbitzuak adarrekoa, eta %12,4 Eraikuntza sektorekoa.</p> <p>✍ Industria sektorea da udal ekonomiari balio erantsi gehien dakarkiona; guztirako %69,1.</p> <p>✍ 2001ean, guztizko biztanleriaren %52,2 (6.184 pertsona) aktiboa zen; hots, Mankomunitatean eta Gipuzkoan erregistratutako tasak baino handiagoa.</p> <p>✍ 2004ko lehenengo hiru hilabeteetan, bertako langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %3,8, behin-behinekotasun mailak altua izaten jarraitzen duen arren.</p> <p>✍ Sexu eta adinaren arabera langabeziari dagokionez, emakumezkoen kalterako banaketa desorekatua ematen da. 2004an, 39 gizonezko langabetu erregistratuta ziren, eta 79 emakume. Halaber, 25-44 bitarteko adin-multzoa da langabetu gehien biltzen dituen.</p> <p>✍ 2004an, 9 familiak Oinarrizko Errenta jasotzen zuten, eta beste 23k Gizarte Larrialdiko Laguntzak.</p> <p>✍ Udal-aurrekontu osoko %9,27 gizarte-politiken kudeaketara bideratuta dago.</p> <p>✍ Udalerrian Osasun-zentro edo anbulatorio bat dago (lehen mailako arretako zerbitzuak, medikuntza orokorra, ginekologia eta larrialdiak)</p> <p>✍ Euskararen ezagutzari dagokionez, 2001. urtean biztanleriaren %64,8 euskalduna zen, %16,8 erdi-euskalduna eta %18,2 erdalduna. Dagoen joera ondoko hauxe da: euskaldunen kopurua hazte eta erdaldunen jaistea.</p>	<p>✍ Dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea, sektore berriak eta enpleguaren jarduera sortzaileak erakarriz.</p> <p>✍ Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreari laguntza ekonomikoa sustatzea.</p> <p>✍ Tokiko merkataritzari laguntza sustatzea.</p> <p>✍ Informazioaren Gizartean integrazioa sustatzea.</p> <p>✍ Udalerriko baliabide naturalen aprobetxamendua eta erabilera ekonomiko iraunkorra sustatzea.</p> <p>✍ Sektore behartsuenei eta adinekoei zuzendutako gizarte zerbitzuen sorrera bultzatzea.</p>

2. Diagnostikotik Ekintza-planera

INGURU FISIKOA ETA NATURGUNEAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ☞ Deba ibaiaren kalitateak, San Prudentzio parean, eta baldintza fisiko-kimikoek galarazten dute arrain-bizitza. Udalerritik igarotzean ere, kalitate eskasa dago. ☞ Aparteko ekosistemak eta ingurumen unitate bereziak daude. Ondoko hauek aurkitu daitezke: larre eta laborantza atlantikoak, albitz-belardia, mendiko belardiak, txilardi-otadia, baso-landaketak. artadi kantauriarra, ameztia, ezkamezti-haritzia, haritzia-baso misto atlantikoa, haltzadiak eta pagadiak. ☞ Gehiegizko koniferoen landaketak daude. ☞ Ekologia eta paisaiaren ikuspegitik garrantzi berezia duten bi guneak: Elgeako mendizerra, aurreikusitako Aizkorri-Aratz parke naturalaren barruan, eta Urkuluko urtegia eta bere ingurua. Aipatutako bi eremuak babes bereziko eta udalaz gaindiko araudietan agertzen dira. ☞ Udal-azaleraren %36,52 Aizkorri-Aratz Parke Natural barruan sartzeko proposamena dago, Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) gisara. ☞ Geologia- eta Morfologia-intereseko gune ugariak dira. ☞ Urkuluko arroaren errekaetoetan haltzadie lotutako ibai-ekosistemak daude. ☞ 1999ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean, 9 baso-sute izan dira, zabarkeriak eragindakoak. ☞ Ez dago erauzte-jarduerarik martxan, baina badira horrelako bi bertan behera utzita daudenak. 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Ingurumen baliabideen eta biodibertsitatearen babesa laguntzen duen baso-kudeaketa. ☞ Ekosistemen eta natur-, geologia-morfologia- eta paisaia-baloreen babes berezia. ☞ Geologia- eta morfologia-interesa duten guneen sustapena. ☞ Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren kudeaketan esku-hartze aktiboa. ☞ Urkuluko urtegiaren eta bere inguruaren babesaz ardura berezia. ☞ Ibaiertzen pixkanakako berreskurapena: bertako espezieak zabaltzea, bideratutako eremuen birlanaketa,...

LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA-PLANEAMENDUA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Aretxabaleta Arrasate-Bergarako edo Debagoienako Lurralde Zatikako Plan barruan dago, eremu horretako hiriburu funtzionala Arrasate izanik. ✍ Udalerria SPCV-ren errepideko oinarriko interkonexioen barruan dago, Gasteizekin lotura zuzena eta Donostiarekin zeharkako lotura izanik. Donostia eta Gasteiz arteko bide-loturan sartuta dago, Debako bailaratik. ✍ Eskualdea abiadura handiko trenaren trazaketa barruan sartuta dago. ✍ Udallerriari eragiten dioten Lurraldearen Arloko Planak ondokoak dira: Ibaien era Erreken ertzak Antolatzeko Plana, EAeko Errepideen Plan Orokorra, EAeko Tren Sarearen Plana, Haize-energiaren LAP, Hezeguneen Antolamendurako Plana, eta Jarduera Ekonomiko zein Merkataritza-Ekipamenduetarako Lurzorua Antolatzeko Plana. ✍ Indarrean dagoen hirigintza-planeamendua behin betiko onartutako B motako Arau Subsidiarioak dira. Orokorreko berrikusketaren prozesua hasita dago. ✍ Arau Subsidiarioek lurzoru urbanizagarriaren hazkunde garrantzitsua aurreikusten dute. ✍ Aipatu arauak ere 640 etxebizitza berri egiteko asmoa dute. Galdeketa berri baten arabera, etxebizitza batean sartzea eta horren inguruko kalitatea eta prezioa dira atsekabe gehien sortzen dutenak udal zein eskualde mailan. ✍ Arau Subsidiarioek ere industria erabilerako 4 eremu berri sortzea aurreikusten dute, lurzoru urbanizagarrian. ✍ Berdegune eta espazio libreetako sistema orokorra urria da, eta ez da betetzen legezko gutxienezko estandarra; biztanleko 5m². Arauek egoera hori gaituzte dute helburu. ✍ Arauek natur- eta landa-eremuaren babeserako irizpideak eta araudiak sartu nahi dute. Bereziki, Aizkorriko mendikatea eta Urkuluko urtegiaren ingurua lehentasunezko zatitza jotzen dira. ✍ Arau Subsidiarioek Interes Kultureko Ondasun Higiezin moduan jotako multzoen eta elementuen katalogoa hartzen dute barne. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Babeseko etxebizitza sustatzea (Babes Ofizialekoa edo Tasatua), jabetza-erregimenean edo alokatuta. ✍ Dagoen ondare historikoa eta artistikoa babestea. ✍ Berdeguneak eta espazio libreak lurzoru urbanizagarrian handitzea. ✍ Jarduera ekonomikoetarako lurzorua bermatzea. ✍ Natur-inguruaren babesari arreta berezia ematea, batez ere ekologia- edota paisaia-intereseko guneei.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Aretxabaleta Debagoieneko bide-sistemaren ardatza zentratean dago, GI-627 errepideak zeharkatuta, saihebidetarako herrigunetik igarotzea saihestuz. Ardatz honen gainean Eibar-Gasteiz autobidea proiektatuta dago. ✍ Gaur egun ez dago inolako trenbide-sistemarik, Ferrocarril Vasco-Navarro izeneko plataforma dagoen arren. Bere ibilbidean egitasmo ezberdinak egitea aztertu da: Debako Tranbia eta bidegorri-sareak. ✍ Debagoieneko Lurralde Zatikako Planak (LZP) izaera bereziko hiri-arteko ibilbideen sarea proposatzen du: antzinako trenbideen trazaketa segitzen duten oinezkoentzako zirkuituak eta bidegorriak... ✍ Egun hirigunea, Baintxen, Urkuluko urtegiarekin lotzen duen bidegorri bat badago. ✍ Eskualde mailan, 2005ko martxoan Debagoieneko mugikortasunaren antolamendua eta kudeaketarako azterlana egin zen, mugikortasunaren inguruko ondorio garrantzitsuekin eskualde zein udal mailan. ✍ Hain zuzen ere, garraio publikoari buruzko ondorioak ondoko hauek dira: eskaintza defizitariora, eskaera geldirik dago, eskaeraren erantzun nahikoa eta hazkundearen potentzial handia. ✍ Parke mugikorra handia da eta gorako joera dauka. ✍ Udala mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzako Irisgarritasun Plan bat egiten ari da. Azken urteetan, zenbait ekintza burutu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Mugikortasun iraunkorra bultzatzea, bereziki ondokoak; garraio publikoa, oinezkoen mugikortasuna eta bizikleta. ✍ Garraio publikoaren alde apustu egitea; bereziki, Debako tranbia bidez. ✍ Mugikortasun iraunkorraren beharraz hiritarren sentsibilizazioa eta kontzientziaketa sustatzea. ✍ Mugikortasunari buruzko trabak dituzten taldeen mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea. ✍ Debagoieneko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren martxan jartzea aktiboki parte hartzea.

URA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Uraren hornikuntza sareak Urkuluko urtegia eta bete Edateko Uraren Araztegia (EUA) du oinarri. Edateko uraren kalitatea ontzat jotzen da. ✍ Ur-kontsumoari dagokionez, ez dago sektorekako kontsumoen gaineko daturik eta horrek eragozten du etxeko kontsumoen garrantzia jakitea. Udaleko kontsumoak dagokienez, joera egonkorra ikusten da, azken urteetan gorabehera ugari izan arren. ✍ Industriak ur-baliabide ugari hartzen ditu ibaitik; gehienetan baimenik gabe, horrek ibai-ekosisteman azaro ugari sortuz, gehienbat lehorraldian. ✍ Eskualdeko saneamendu sarea Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasateko kolektoreek osatzen dute. Hondakin Uren Araztegia (HUA) Epelen kokatuta dago, eraikitzeko zain. ✍ Aretxabaletako 4 industrien hondakinak uretara isurtzearen gaineko aitorpena egin dute. ✍ Landa-ingurunean uren saneamenduari lotutako arazo bat badago; arazketa bateratua faltan baita. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Uren hornikuntzaren kudeaketa eta kontrola hobetzea. ✍ Ihesak eta zenbait gabeko kontsumoak direla eta, sortutako ur-ihesak murriztea. ✍ Ur-hondakinaren saneamendu sarea osatzea eta hobetzea. ✍ Landa-ingurunean uren hornikuntza eta saneamendua hobetzea. ✍ Sentsibilizazio kanpainak egitea kontsumoak murrizteko. ✍ Udal instalazio eta jardueretan ura aurreztu eta eraginkor erabiltzeko neurriak hartzea.

KALITATE ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Udalerrian ez dago Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sare-estaziorik. Gertuena Arrasaten dago. ✍ Atmosfera potentzialki poluitu dezaketen jardueren katalogoko 3 enpresa daude udalerrian. ✍ EAEko Ingurumen Adierazle-Sistemaren arabera, 2003an airearen kalitateak txarrera jo du Debagoienako eskualdean: airearen kalitate txarreko edo oso kalitate txarreko egun-kopurua 19 izan baita; EAEko batez bestekoa 9,9 egun izanik. ✍ Aretxabaletan ez dago zarata-maparik, ezta udalerriko soinu-kalitatea ezagutzera ematen duten azterketa zehatzik ere. ✍ Zarata sortzen duten bi iturri nagusiak ondoko hauek dira: herrigune ondoan kokatutako industriak eta zirkulazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Poluzio atmosferikoa eta airearen kalitateari dagokionez, erakundeen arteko komunikazioa hobetzea: Udalak sentso-reseerak eta bertako industrietan emandako datuei segimendua egitea eta kontrolatzea. ✍ Zaratari lotutako arazoak aztertzea eta gune gatazkatsuen kontrola hobetzea.

ENERGIA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Kontsumo elektrikoaren hazkunde jarraitua izan da sektore guztietan. Industria da udalerrian argindar gehien kontsumitzen duen sektorea (2003an, %72,3), gorako bilakaera izanik. Aldiz, etxeko kontsumo elektrikoa gutzitzkoaren %14,5 zen, eta pixkanakako gorakada izan du. ✍ Etxeko kontsumo elektrikoaren batez bestekoa ondoko hauxe izan zen; urtean 964,5Kwh biztanleko. ✍ Udalerrian ez dago inolako kogenerazio-sistemarik. ✍ Baliabide berriztagarrien aprobetxamenduari eta energiaren erabilera arrazionalari dagokienez, EEE-EVEk alde aurreko analisia eta ekintzarako proposamena jada prestatu ditu. ✍ Udalerrian badira 9 eguzki-instalazio fotovoltaiko, urtean 1.559 Kwh sortuz. ✍ Elgea eta Urkillako haize-parkeen zati bat udalerrri barruan daude kokatuta. Aretxabaletan ipinitako haize-sorgailuak 3 dira, eta beren potentzia osoa 6.080.000 KWh urteko da. ✍ Badira 20 etxebizitza energia-eraginkortasunerako behin-behineko ziurtagiria dutenak. ✍ Udal instalazioen kudeaketa energetikoa eta eraginkortasuna gero eta handiagoa da. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Udaleko kontsumo energetikoa murriztea. Udal zerbitzuetan ekipa eraginkorrak eta kontsumo baxukoak erabiltzea (kaleko argiteria eta udal eraikinak). ✍ Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE-EVE) hitzarmen bat sinatzea, energia berriztagarriak eta sorkuntza-sistemak garatzeko, eta baita energia aurreztu eta eraginkor erabiltzeko neurriak ezartzea. ✍ Hiritarrak sentsibilizatzea aurrezteak eta eraginkortasun energetikoak eskainitako aukeren eta beharraren inguruan.

HONDAKINAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Hiri hondakin solidoen bilketa eta garraioa Debagoieneko Mankomunitateak egiten du. ✍ Hiri hondakinen sorrerako indizea moderatua da; 2003an, 1,2 Kg eguneko eta biztanleko. ✍ Gaikako bilketa bidez jasotako beiraren kopuruak handitu dira azken urteetan. ✍ Gaikako bilketa bidez jasotako paperaren eta kartoiaren kopuruak eskualdeko batez bestekotik behera daude. Ostera, Industrian eta merkataritzan bildutako kartoiaren kantitateak nabarmen egin du gora. ✍ Bildutako ontzi arinen bilketak hazkunde jarraitua izan du, sistema hori ezarri zenetik. ✍ Tamaina handiko hondakinen bilketak gorakada handia izan du. ✍ Pilen bilketak, aldiz, etengabeko beherakada izan du. ✍ 2003. urtean, ondoko hauen gaikako bilketa abian jarri zen: sukaldeko olioak, etxe hondakin arriskutsuak eta arropa, arrakasta handia lortuz. ✍ Kaleko zakarrentzien kopurua ona da, Hondakinen Plan Nazionalak (PNR) ezarritako helburuak soberan gaindituz. ✍ Hurbilen dagoen Garbigunea Arrasatekoa da. ✍ Udalerrian badira 3 enpresa hondakin arriskutsuak ekoizteko aitorpena aurkeztu dutenak. ✍ Gipuzkoako Merkataritza Ganbararekiko hitzarmena dago ekoizle txikien hondakin arriskutsuak biltzeko. ✍ Abeltzaintzako hondakin guztiak ustiategietan beraietan barreiatzen dira, poluzioari lotutako arazoak ekar ditzakeena nitrogeno gehiegiaren ondorioz ✍ Poluituta egon daitezkeen Lurzoruen Inbentarioak 46 kokaleku hartzen ditu barne, 20,67 Ha hartuz. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Hiri-hondakinen sorreran murrizketa bultzatzea. ✍ Hondakinen gaikako bilketari lotutako zerbitzu berriak instalatzea eta ratioak hobetzea. ✍ Hiri-hondakinen murrizketa eta birziklapena direla eta, hiritarren sentsibilizazio-kanpainak egitea. ✍ Hondakin arriskutsuen gaikako bilketan esku-hartzea (etxeokak, ekoizle txikiak,...) ✍ Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jardueretan sortutako hondakinen kudeaketa hobetzea. ✍ Lurzoru poluituen gaineko legeria hertsiki aplikatzea.

INGURUMEN SENTSIBILIZAZIOA, HEZIKETA ETA KUDEAKETA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMENAK – JARDUTEKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ✍ Herri-elkarte eta entitate ugari dira, haietako batzuk ingurumen gaiekin zerikusi izanik. ✍ Udalak egindako jardueretan ez dago herritarren partaidetzarako organo edo tresna egonkorrik. ✍ Aretxabaletako herritarrak gustura daude udalerrian eta eskualdean bizi eta lan egiteko espazio moduan. ✍ Aretxabaletako herritarrei poztasun gutxien ematen dieten gaiak ondokoak dira: etxebizitza lortzea, eta bere prezioa eta kalitatea, gazteentzako zerbitzuen gabezia, turismoaren eta nekazaritzaren egoera. Ingurumen alorrari dagokionez, ibaien egoera eta mugitzeko dauden arazoak. ✍ Ingurumen edo iraunkortasun gaien sentsibilizazioari edo zabalkundeari dagokienez, ez dago Udalak bultzatutako jarduerarik. ✍ Debagoieneko Mankomunitateak, ostera, ingurumen sentsibilizazioari buruzko jarduera ugari garatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✍ Udaleko eta eskualdeko zerbitzuen koordinazioa hobetzea, iraunkortasunari lotutako gaien kudeaketakoak, hain zuzen ere. ✍ Udal kudeaketan iraunkortasuneko eta ingurumen babeseko irizpideak sartzea: barneko funtzionamendua, zerbitzuen kontratazioa eta esleipena, materialak eta produktuak erostea (“erosketa berdea”),... ✍ Iraunkortasunari buruzko udal politiketan esku-hartze publikoa sustatzea. ✍ Iraunkortasunean eta ingurumenaren babesean gizarte-sentsibilizazioa eta heziketa sustatzea.

3. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

3.1. Helburuak

Iraunkortasunerako Ekintza-planaren helburuak Europako Hiri Iraunkorren Gutunean, "Aalborg-eko Gutuna", ezarritako iraunkortasunerako irizpide zuzentzaileak kontuan hartuta zehazten dira, ondoko modu sintetiko honetaz aditzera ematen direnak:

- ? Baliabide materialen, hidrikoen eta energetiko berriztagarrien kontsumo-erritmoa natur-guneek haiek berriztatzeko duten gaitasuna baino txikiagoa.
- ? Berriztagarriak ez diren baliabideen kontsumo-erritmoa baliabide berriztagarriak ordezkatzeko erritmoa baino txikiagoa.
- ? Poluitzaileen isurpen-erritmoa urak, aireak eta lurrak haiek xurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna baino txikiagoa.
- ? Ingurumen kalitatea, osasun publikoa eta aniztasun biologikoa mantentzea bizitza, gizakien ongizatea, landaredia eta fauna babesteko behar adineko mailan.
- ? Justizia soziala eta biztanleriaren oinarritzko beharrak gogobetetzea.
- ? Herritarrek eta tokiko sektoreek tokiko garapen iraunkorrean esku-hartzea.
- ? Tokiko aurrerapen ekonomikoa.


Iraunkortasunerako irizpide nagusi hauek Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoan bildutako aspektuekin batera kontuan izateak udalerrarentzako iraunkortasun-helburu zehatz batzuk definitzea dakar. Helburu hauetatik eta beren hierarkizaziotik aurrera, Ildo Estrategikoen moduan zehaztutako Planaren helburu estrategikoak definitzen dira, Ekintza-planaren ardatz egituratzaileak osatzen dituztenak.

3.2. Egitura eta edukiak

3.2.1 Ekintza-planaren egitura

Tokiko Ekintza-planak lerro estrategikoen definizioan oinarriturik egituratzen dira, eta hain zuzen, lerro horiek planaren funtsezko helburuak osatzen dituzte.

Lerro estrategiko bakoitzak helburu espezifikoak ditu eta helburu horiek ekintza-programetan adierazten dira. Programa horiek ekintza-multzo batean gauzatzen dira, eta horiek planaren oinarritzko batasuna eta eraginkortasuna osatzen dute, eta aldi berean, karakterizazio zehatza eta espezifikoa eskatzen dute.



3.2.2. Ekintza-planaren oinarritzko ezaugarriak

Ekintzak Iraunkortasunerako Ekintza Plana egituratu eta definitzen oinarritzko unitateak dira, haietako bakoitzak hurrengo orrialdeetan erakusten den ezaugarriak dituelarik.

Iraunkortasunerako Ekintza Planaren diseinurako hartutako ekintza kontzeptua esanahi nahiko zabala du, eta horregatik sailkapen horren barruan izaera oso ezberdineko ekintzak aurkitu ditzakegu:

? **Kudeaketa**

Iraunkortasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak.

Adibideak: Azpiegitura jakin batek ingurumenean duen eraginaren segimendua egitea, ziklomotorren maila akustikoa kontrolatzea, udalez gaindiko administrazio baten esku-hartzea eskatzea.

? **Hezkuntza eta parte-hartzea**

Iraunkortasunerako trebakuntza eta hezkuntzarekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.

Adibideak: Eskoletako hezkuntza-kanpainak, Parte hartzeko organo egonkor bat sortzea Tokiko Agenda 21en segimendua egiteko

? **Araudia**

Arau hauek gehitzea edo aldatzea: lurraren erabilerak eta jarduerak arautzen dituztenak, ingurunearekiko inpaktuak mugatzen dituztenak, ingurumenaren kudeaketa hobetzen dutenak edo jasangarritasunerako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituztenak eta ingurumen-kostuen edo -abantailen barneratzen laguntzen dutenak.

Adibideak: Eguzki-energia sustatzen duten aginduak egitea, Aginduak udalez gaindiko ingurumen-arau berrienetara egokitzea

? **Pizgarri ekonomikoak**

Herritarren eta enpresen aldetik iraunkortasunerantz zuzendutako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituzten zergak, diru-laguntzak, finantziario-lerroak edo beste tresna ekonomiko batzuk aldatzea, ingurumen-kostuak eta -abantailak barneratzen laguntzeko.

Adibidea: Zerga-deskontuak egitea eguzki-kolektoreen instalaziorako obrak egiteko baimena ematean.

? **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.

Adibideak: Ur-araztegiak eraikitzea, plaka fotovoltaikoak instalatzea, bizikletentzako bideak eraikitzea.

? **Iraunkortasun-irizpideak integratzea**

Udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduarekin lotutako hainbat alderditan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten ekintzak.

Adibidea: Hiri-plangintzan eta udalak produktuak erostean, ingurumen-irizpideak integratzea, tokiko administrazioaren funtzionamenduan jardunbide egokiak integratzea.

? **Ikerketak**

Iraunkortasun-mailari buruzko arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edo Tokiko Ekintza-planak gauzatu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

Adibideak: Bideen Inbentarioa egitea, konpostaje-instalazio baten bideragarritasun-azterketa egitea.

EKINTZEN ADIERAZPENEAN ERABILITAKO KONTZEPTUEN DESKRIPZIOA

KONTZEPTUA		DESKRIPZIOA
Kodea		Hiru zenbakik osatutako kodea, lerro, programa eta ekintza berari dagozkionak.
Ekintza		Ekintzaren izenburua
Lerroa		Ekintzari dagokion lerro estrategikoaren izenburua eta zenbakia. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
Programa		Ekintzari dagokion jarduteko programaren izenburua eta zenbakia. Ekintzaren helburu zehatza jasotzen du.
Deskribapena		Ekintzaren oinarrizko definizioa eta karakterizazioa
Gauzatze epea		Gauzatu edo ezarri beharreko gehienezko epea
	Laburra (0-1 urte)	Gauzatze/Ezartze epea laburra dela adierazten du (0 urtetik urte 1ra)
	Ertaina (1-3 urte)	Gauzatze/Ezartze epea laburra dela adierazten du (urte 1etik 3 urtera)
	Luzea (3-5 urte)	Gauzatze/Ezartze epea laburra dela adierazten du (3 urtetik 5 urtera)
Periodikotasuna		Ekintza egiteko proposatutako maiztasuna. Ekintza era etengabean garatu behar den kasuetan "Jarraia" bezala adierazten da.
Lehentasuna		Proposaturiko ekintza lehentasunezkoa den adierazten du, arlo klabe baten eragiten duelako, berau ezartzea premiazkoa delako edo berau ezartzeak ondorio positibo asko izango dituelako.
Aurreikusitako Kostua		Ekintza gauzatzeko edo ezartzeko kostu zenbatetsia, ekintza bera martxan jartzeko eta mantentze-lanak egiteko kostuak barne.
Erakundeak		Ekintza gauzatzean edo ezartzean parte hartzen duten erakundeak.
Finantziarioa		Ekintzaren finantziario ekonomikoan parte hartzen duten edo har dezaketen erakundeak.

Adierazleak	Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistemaren adierazlea edo adierazleak, ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak.
Gauzatzearen kontrola	Ekintzaren garapen- edo ezartze-maila adierazten du
Hasteko zain	Ez da hasi ekintzarekin harremanaturiko ekimenik.
Hasita	Ekintzaren hasierako faseak garatu dira (Proiektu fasea, beste eragileekin elkarrizketak hasi,..)
Aurreratua	Hasierako faseak gaireratik ekintzarekin harremanaturiko ekimenak hasi dira.
Amaitzen	Sailkapen honetan gauzatze kontrola urtean bukatzen duten ekintzak, edo gauzatze kontrola egin aurretik hasiak diren ekintza jarriak sartzen dira.
Amaituta	Sailkapen honetan gauzatze kontrola egiten denean amaiturik dauden ekintzak, edo ekintza egotea eragiten duen arazoa bukatutako ekintzak sartzen dira.

3.2.3. Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzak burutzeko erantzukizuna

Ekintza-planak bere gain hartzen ditu Udalak bere osotasunean edo zati baten finantzaturiko ekintzak. Udalaz gaindiko erakundeek eskumena dituzten ekintzen kasuan, adierazitako kostua bakarrik udalak dagokion erakundeari eragiteko eskakizuna egitearena da.

Planteaturiko ekintzen mota eta gai aniztasuna dela eta, kostuen ezarpena ere oso anitza da, hurrengo kasu bereziak planteatuz:

? **Udal giza baliabideak erabiltzea bakarrik suposatzen duten ekintzak:**

Udalak aurrez dituen giza baliabideek aurrera eraman beharreko dedikazio eskasagatik, kontratatutakoen denbora kostua eraldatzen ez duten ekintzak, edo gehienez jota beste ekintza batean proposaturiko pertsona baten kontratatzea suposatzen dutenak.

Adibidea: Tokiko Agenda 21 bultzatzeko organo bat eratu.

? **Kosturik gabeko ekintzak**

Ekintzaren ezaugarriengatik aparteko kostu ekonomikorik suposatzen ez duten ekintzak.

Adibidea: Hornitzaileen aukeraketan iraunkortasun irizpideak barneratu.

? **Definitu beharrekoa**

Bere dimentsioa dela eta proiektu tekniko eta ikerketa ekonomiko baten beharra duten ekintzak.

Adibidez: Konposta egiteko planta bat eraiki.

Proposaturiko ekintza bakoitzak berau finantza dezaketen erakunde posibleen bilduma dakar berarekin. Erakunde ezberdinen finantziarioa lortzea Udal bakoitzaren aldetik Iraunkortasunerako Ekintza Planaren kudeaketaren oinarritzko arloetako bat da.

ERAKUNDEEN KODEAK ULERTZEKO KLABEA

AYTOA	Aretxabaletako Udala
ASEL	Tokiko Gizarte eta Ekonomia Eragileak
EVE	Energiaren Euskal Erakundea
IBE	Iberdrola
IHO	IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa
DFG	Gipuzkoako Foru Aldundia
IND	Industria
INE	Lanaren Institutu Nazional
GV	Eusko Jaurlaritza
CAG	Gipuzkoako Ur Partzuergoa
CTG	Gipuzkoako Garraio Partzuergoa
MAD	Debagoieneko Mankomunitatea
ACDE	Eskualdeko Garapen Ekonomiarako Agentzia
SURAD	Debagoieneko Birgaiketarako Hirigintza Sozietatea

**3.3 LERRO ESTRATEGIKO,
PROGRAMA ETA EKINTZEN
LABURPENA
PROGRAMEN PRIORIZAZIOA**

ARETXABALETAKO TOKIKO AGENDA 21

LERRO ESTRATEGIKOAK
ARETXABALETAKO
IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

- LE1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.**
- LE2. ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA BULTZATU**
- LE3. UDAL BIZITZA DINAMIZATU ETA GIZARTE-KULTURA ETA AISIALDI GARAPENERAKO AUKERAK HOBETU**
- LE4. BALORE NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTU ETA HOBETU**
- LE5. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE APUSTU EGITEA, HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATU**
- LE6. BALIABIDE NATURALEN (URA, AIREA, LURZORUA ETA ENERGIA) ERABILERA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA ARRAZOITU ETA HOBETU**
- LE7. UDAL KUDEAKETAN IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK BARNERATU ETA PARTAIDETZA PUBLIKOA BULTZATU**

LERRO ESTRATEGIKOAK
PROGRAMAK
EKINTZAK
ARETXABALETAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA

P 1.1. Ekimen ekonomiko berriak sustatzeko programa

Garapen Ekonomikoko Eskualdeko Agentziaren modernizazio eta dibertsifikazio ekonomikoaren sailak ekintzak eta proiektuak bultzatu (Enpresa Ekimen Zentroa, Merkataritzari Laguntzeko Bulego Teknikoa eta Turismo Ekimenen Zentroa).

Era Mankomunatuak:

- ? Jarduera ekonomiko eta enpresarialak garatzeko ideien lehiaketa
- ? Ekintzaile berriei laguntza zerbitzua
- ? Nekazal eta landa turismo sustatze ekimenak

Udalerrri Mailan:

- 1.1.1 Aktibitate ekonomikoentzako lurzoru, lokal eta instalazioen promozioa sustatu (lurzoru estrategikoen udal erosketa).
- 1.1.2 Jarduera berrien kokapena laguntzea, iraunkortasun irizpideei erantzuten diotenak
- 1.1.3 Enpresa berritzaileei diru laguntzak emateko ordenantza aplikatzea
- 1.1.4 Tokiko merkataritza dinamizatzeko PERCO bat egitea

P 1.2. Sektore ahulenei bideraturiko enplegu sustapen programa.

Eskualdeko Garapen Ekonomikoko Agentziaren lan-merkatuan bitartekaritza saila eta Formazio sailaren ekintza eta proiektuak bultzatu

Era Mankomunatuak:

- ? Iraupen luzeko langabetu eta emakume langabetuentzako kontrataziorako laguntzak
- ? Lan merkatuan emakumea barneratzeko sentsibilizazio ekintzak
- ? Prestakuntza zentroetan autoenplegurako sentsibilizazioa
- ? Langabetuei zuzenduriko teknologia berrietan prestakuntza ekintzak

Udalerrri Mailan:

- 1.2.1. Udal lanak egiteko prestakuntza eta kontratazioen bitartez lan merkatua barneratzea (Auzolan Programa, Eskoriatzarekin elkarlanean)
- 1.2.2. Aretxabaletako Institutu Publikoan ematen diren Arautu gabeko hezkuntza aktibitateei laguntzak ematen jarraitu

LE 2. ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA BULTZATU

P 2.1. Pertsona nagusien bizi kalitatea areagotzeko programa

Debagoieneko Mankomunitatea (2004-2007 Plan Estrategikoa) Gizarte Zerbitzuen ekintza eta proiektuak lagundu

Era Mankomunatuan:

- ? Etxeetako Laguntza zerbitzua
- ? Etxebizitzako Tele-Alarma
- ? Eguneko Zentroa (Arrasate eta Eskoriatzan)
- ? Etxebizitzak egokitzeko laguntzak
- ? Gerontologi Plan bat martxan jartzea

Udalerri Mailan:

- 2.1.1. Mankomunaturiko zerbitzuekin jarraitu (Etxeetako Laguntza zerbitzua, Etxebizitzako Tele-Alarma, Eguneko Zentroa,...)

P.2.2. Gizarte berdintasuna, kohesioa eta berdintasuna bultzatzeko programa

Debagoieneko Mankomunitatea (2004-2007 Plan Estrategikoa) Gizarte Zerbitzuen ekintza eta proiektuak lagundu

Era Mankomunatuan:

- ? Familiarteko tratu txarren biktimentzako arreta hobetu
- ? Genero indarkeriaren biktimentzako eskualdeko arreta plana (laguntza ekonomikoa eta psikologikoa, zainduriko etxebizitzak, topalekuak, ... (egiteko bidean)

Udalerri Mailan:

- 2.2.1. Oinarrizko Errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen udal kudeaketa
- 2.2.2. Arriskuan dauden adin-txikikoak dituzten familiei laguntza
- 2.2.3. Etorkinei laguntzen jarraitzea: Informazioa, sentsibilizazioa eta deribazioa (Heldu Programatik eratorria)
- 2.2.4. Gizarte Zerbitzuen elkarte eta Garapenerako GKE laguntzen jarraitu
- 2.2.5. Nazioarteko Elkartasuneko ekintzetara bideratutako udal aurrekontua %0,7an mantentzea

LE 3. UDAL BIZITZA DINAMIZATU ETA GIZARTE-KULTURA ETA AISIALDI GARAPENERAKO AUKERAK HOBETU

P 3.1. Udalerriko bizitza dinamizatzeko programa

- 3.1.1. PERCOTik tokiko merkataritza laguntzeko datozen ekintzak garatu (egiteko bidean)
- 3.1.2. Gizarte eta kultura dinamizaziorako ekintzetan herri arteko kolaborazioa hobetu (batez ere Eskoriatzarekin)
- 3.1.3. Tokiko nortasunaren sendotzerako eta udalerraren ezaguerarako ekintzak
- 3.1.4. Udalerriko elkarte eta erakundeen eta Udalaren arteko erlazioak hobetu eta zabaldu

P 3.2. Kultura, Kirola eta Aisialdia sustatzeko programa

- 3.1.1. Udalerriko kultura eta kirol elkarteei laguntza
- 3.1.2. Irakurketa sustatzeko ekintzak garatu
- 3.1.3. Ekintza kulturalak eta kirol ekintzak sustatu eta lagundu
- 3.1.4. Udal kirol instalazioen hobekuntza
- 3.1.5. Eskolako kirolaren praktika bultzatu (Foru Aldundiarekin Hitzarmena egiteko aukera)
- 3.1.6. Kirol ekintzen eskaintza handitu: Gizarte edukia duen "Kirola guztientzako" programa
- 3.1.7. Kirolari laguntzeko eskualdeko eskaintza jarraitu eta hobetu

P 3.3. Euskararen erabilera bultzatzeko programa
Euskararen Normalkuntza Planean azaltzen diren ekintza eta proiektuak garatu eta bultzatu.

LE 4. BALORE NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTU ETA HOBETU

P 4.1. Biodibertsitate, natura eta paisai aldetik interesa duten gune eta ekosistemak babestu eta birsortzeko programa

Era Mankomunatuak:

- ? Paisai aldetik interesa duten guneetako ibilbideak hobetu eta mantendu
- ? Debagoienako turismoa sustatzeko ekintzekin jarraitu

Udalerrri Mailan:

- 4.1.1. Urkuluko urtegiaren inguruan ingurumen hobekuntza, babeseta eta erabileren antolamendua (Naturgintzarekin elkarlanean).
- 4.1.2. Natura aldetik interesa duten gune nagusienetan hezkuntza-ingurumen seinalizazioa (Urkulu, geologi aldetik interesa duten puntuak, Aizkorri-Aratz parke naturala, Deba ibaiaren ubideak,...)
- 4.1.3. Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Patronatuan partaidetza aktiboa, eta babes, hezkuntza eta herritar sentsibilizazio ekintzak garatu.
- 4.1.4. Udal ibaiertzeko landaretza babestu eta hobetu.
- 4.1.5. Herrigunean Deba ibaiaren ibilgua eta hertzak babestu eta hobetu
- 4.1.6. "Zuhaitz Eguna" urtero ospatzea (Ikastetxeekin eta beste udalerriekin koordinatuz)
- 4.1.7. Udal hirigintza planeamenduan natur ingurunearen babeserako irizpideak barneratu.
- 4.1.8. Hiri eremuan balore naturalak sailkatu eta ezagutarazi: zuhaitzak, landareak, berdeguneak,...

P 4.2. Landa ingurunean eta nekazal eta basogintza jardueratan iraunkortasun baloreak sustatzeko programa

- 4.2.1. Ingurumen eraginaren informazio eta kontrola (hondakinak, erreketak,...) nekazal jardueretan
- 4.2.2. Iraunkortasuna eta ingurumenaren babesean oinarritutako nekazal ekimenak ezartzea erraztu eta lagundu
- 4.2.3. Aisialdi jardueretan Landa eta Natura inguruneari errespetuan oinarritutako gizarte sentsibilizazioa
- 4.2.4. Foru Aldundiko Nekazaritza sailarekin elkarlan programa bat ezarri, jabetza publikoa duten lur eta mendien kudeaketa hobetu eta bertako landaretza errekuiperatzera zuzendua.
- 4.2.5. Eusko Jaurlaritzako uren zuzendaritzarekin elkarlan programa bat ezarri, Ur Domeinu Publikoa eta bere mirabetzen babeseta hobetu eta ibai ekosistemak birsortzeko: ibai eta erreken ibilgu eta hertzak, ... batez ere ibaien arroen buruetan.
- 4.2.6. Udal Kontrolerako Plan bat ezarri, azpiegitura eta hirigintza garapen berrien eraikuntzan ingurumen eraginak zuzendu eta aurreikusteko neurriak eta Behaketa Planak betetzen direla ziurtarazteko. Batez ere Biodibertsitatea eta paisaia babesteko, landaretza hesiak eta landaketak, fauna espezieen mugikortasuna eta istripuenak,.... gaiei dagozkionak.

LE 5. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE APUSTU EGITEA, HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATU

P 5.1. Hirigunearen kalitatea hobetzeko programa

Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba S.A. SURADESA-ren ekintza eta proiektuak lagundu (Bizigune programa, Birgaitzea,...)

Era Mankomunatuan:

- ? Bizigune programa
- ? Etxebizitzen birgaitzea.

Udalerrri Mailan:

- 5.1.1. Hirigintza planeamenduan "lurzoruaren kalitatea" eta iraunkortasun irizpideak barneratzea
- 5.1.2. Arau Subsidiarioen Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioan sartzen diren Inpaktuen minimizazio eta zuzenketa neurrien kontrol eta betetze zorrotza (oraindik egiteko bidean).
- 5.1.3. Auzoetan hirigintza birgaitze ekintzak: Azatza,...
- 5.1.4. Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Tasaturiko Etxebizitza eraikitzea erraztu, propietate erregimenean zein alokairuan.
- 5.1.5. Etxebizitza publikoaren sustapenean VISESA-Eusko Jaurlaritzarekin kolaboratu (udal jabegoa duten etxebizitzak lagatzea).
- 5.1.6. Etxebizitzetara bideratzeko lonjak birgaitzea erraztu.
- 5.1.7. Herri ingurunean zona berdeak eta espazio irekiak areagotzea.

P 5.2. Irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorragoa sustatzeko Programa

Deba Garaiko Mugikortasun Iraunkorren Planaren ekintza eta proiektuak gehitu (egiteko fasean)

Udalerrri Mailan:

- 5.2.1. Aretxabaleta Iparraldea – Arrasate eta Aretxabaleta Hegoaldea-Eskoriatza oinezko bide eta bidegorri lotura eraiki
- 5.2.2. Debako Tranbiaren proiektua bultzatu
- 5.2.3. Hiri espazioan zintarri eta irtenguneak epeka ezabatu
- 5.2.4. Eraikin eta hiri garapen berrietan irisgarritasun arauen betetze zorrotza bermatu
- 5.2.5. Jarduera ezberdinen irekiera berrietan (merkataritza) irisgarritasun arauen betetze zorrotza bermatu
- 5.2.6. Mugitzeko ezintasunak dituzten pertsonentzako Irisgarritasun Plana aplikatzea, epeka.

LE 6. BALIABIDE NATURALEN (URA, AIREA, LURZORUA ETA ENERGIA) ERABILERA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA ARRAZOITU ETA HOBETU

P 6.1. Uraren Kudeaketa Integralerako Programa

Eskualde mailan:

- ? Saneamendu Planaren inguruan Udalerriko enpresei komunikazio kanpaina: aurrez arazteko sistemak, kolektorera lotzeko sistemak, isurpenak egiteko baimenen tramitazioak, industria sektorean uraren erabilerarako praktika onak,....
- ? Uraren etxeko kontsumoa murrizteko herritarrentzako sentsibilizazio kanpainak egin

Udalerrri mailan:

- 6.1.1. PEAS-ak aurrera eramatea jarraitu (Hornikuntza eta Saneamendurako Plan Bereziak)
- 6.1.2. Hornikuntza sarearen etengabeko berrikuntza eta konponketa
- 6.1.3. Udal eraikin eta ur instalazioetan ura egoki erabili eta aurrezteko neurriak

- 6.1.4. Uraren kontsumoaren kontrola eta ihesak aurkitzeko kanpaina
- 6.1.5. Udalerriko baserrietako uraren hornidura hobetu
- 6.1.6. Nekazal jardueren uren isurketen kontrola eta "filtro berdeak" ezartzea ikertu

P 6.2. Udalerriko energi kudeaketan aurrezte eta eraginkortasuna bultzatzeko programa

***"Energiaren erabilera arrazional eta baliabide berriztagarrien aprobetxamenduen gainean ekiteko udal aurreko analisia eta ekiteko proposamena"* (EEE- Aretxabaletako Udala) lanean azaltzen diren ekintzak aukeratu eta gehitu.**

- 6.2.1. Udal instalazio eta eraikinetan kontsumo handiko eta eraginkortasun gutxiko argiteria aldatu.
- 6.2.2. Udal instalazioetan energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak ezarri
- 6.2.3. Argiteria publiko eraginkorra izateko sistemak, erregulazioarekin (intentsitatean eta denboran) argia beharrezko ez denean ez erabiltzeko eta argi bidezko kutsadura mugatzeko (kanpoko argiteriaren energia eraginkortasuna eta argi bidezko kutsadura Aretxabaletan)
- 6.2.4. Etxebizitza berrien eraikuntzan energia eraginkortasun eta aurrezte irizpideak barneratu (batez ere sustapen publikokoetan)

P 6.3. Udal lurzoruaren hobekuntza eta kontserbazio programa

- 6.3.1. Lurzoruaren poluzioren prebentzio eta zuzenketarako legediaren betetze zorrotza bermatu.
- 6.3.2. Nekazaritza eta basogintza jardueretan lurzoruaren gaineko inpaktuak kontrolatzeko neurriak.

P 6.4. Hiri hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa

Debagoieneko Mankomunitatearen Ingurumen Sailaren Ekintzak eta Proiektuak barneratu)

P 6.5. Industriaren sektorean ingurumen eragina kontrolatzeko programa

- 6.4.1. Industrialdeetan iraunkortasun irizpideak barneratu: Hondakinen kudeaketa, energia iraunkortasuna,...
- 6.4.2. Enpresen legezko egokitzapenerako Plan bat abian jartzea, informazio, prestakuntza eta laguntza ekintzak barne izango dituena.
- 6.4.3. Airearen kalitatearen Eusko Jaurlaritzaren udal informazioaren harrera hobetu: atmosfera inmisioa eta airearen kalitatea, Udalerriko enpresen atmosfera isurketak,...
- 6.4.4. Istilu gehien sortzen dituzten zarata iturriei buruzko Zarata ikerketa bat egin.

LE 7. UDAL KUDEAKETAN IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK BARNERATU ETA PARTAIDETZA PUBLIKOA BULTZATU

P 7.1. Udal kudeaketan iraunkortasun-irizpideak barneratzeko programa

- 7.1.1. Kontratazio-pleguetan eta hornitzaileen aukeraketan eta kanpoko zerbitzuen emakidan iraunkortasun-irizpideak integratzea.
- 7.1.2. Produktuak erosteko eta hornitzaileak hautatzeko udal kudeaketan iraunkortasun-irizpideak integratzea (erosketa berdea).
- 7.1.3. Udal jardueratan praktika onak: hondakinen banaketa, errekurtsoen aurrezte eta eraginkortasuna (ura, argiteria, berogailua,...)
- 7.1.4. Barne koordinazioaren hobekuntza, Atal tekniko ezberdinen artean aldiari behin koordinazioa mantenduz (Iraunkortasun edo Tokiko Agenda 21 Udal Batzordea)

- 7.1.5. Udal koordinazioa eta partaidetza hobetu eskualdeko erakundeekin
- 7.1.6. Udal instalazio edo jardueraren batean, Ingurumen Kudeaketako EKOSCAN Sistemak ezartzea.
- 7.1.7. Udalsarea 21en partaidetza aktiboa

P 7.2. Ingurumenaren babesa eta tokiko iraunkortasunaren inguruko herritar sentsibilizaziorako programa

- 7.2.1. Komunikabideetan Tokiko Agenda 21 ezagutaraztea (eskualde zein udalerrri mailako aldizkariak, egunkarien herriko atalak,...)
- 7.2.2. Herritar sentsibilizazio ekintzak tokiko elkarteekin elkarlanean
- 7.2.3. Iraunkortasun edo Tokiko Agenda 21 Udal Foroarekin jarraitzea
- 7.2.4. Ikastetxeekin lan egitea Eskolako Agenda 21 bultzatzeko
- 7.2.5. "Aste Berdea" urtero ospatzea
- 7.2.6. Herritar Partaidetzarako Udal araudi bat egitea.

EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK

ARETXABALETAKO TOKIKO AGENDA 21

1.1.1 Ekintza

Aktibitate ekonomikoentzako lurzoru, lokal eta instalazioen promozioa sustatu (lurzoru estrategikoen udal erosketa).

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.1. Ekimen ekonomiko berriak sustatzeko programa		
Deskribapena	Udalak aktibitate ekonomikoetara zuzendutako eta estrategikoki kokatutako lurzoruak erostea, udalerrian jarduera berrien ezarpena laguntzeko xedez.		
Lehenetasuna	Altua	Burutzeko/ezartzeko epea	Laburra; 0-1 urte
Periodikotasuna	Puntuala		
Balioetsitako kostua	Aztertze zain		
Adierazleak	7 adierazlea: Lurzoruaren erabilera iraunkorra 3 adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Burutzeko kontrola	Hasteko zain		
Burutzeko ardura	AYTOA		
Finantziak	AYTOA		

1.1.2 Ekintza

Jarduera berrien kokapena laguntzea, iraunkortasun irizpideei erantzuten diotenak

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.1. Ekimen ekonomiko berriak sustatzeko programa		
Deskripzioa	Udaleko laguntzen bidez, iraunkortasun irizpideei erantzuten dieten jarduera ekonomiko berrien ezarpena bultzatu nahi da: ingurumenarekiko ekoizpen garbia eta begirunetsua, baliabideen erabilera orekatua, berdintasuna sustatzea eta sektore behartsuenei laguntzea, dinamika soziala sortzea, ... Laguntzak ondoko hauek izan daitezke: udal izapideak erraztea, lizentziei eta zergei hobariak ematea, zuzeneko diru-laguntzak, ...		
Lehentasuna	Ertaina	Burutzeko/ezartzeko epea	Ertaina; 1-3 urte
Periodikotasuna	Jarraitua		
Balioetsitako kostua	Aztertzeko zain		
Adierazleak	3 adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Burutzeko kontrola	Hasteko zain		
Burutzeko ardura	AYTOA, ACDE		
Finantziarioa	AYTOA, ACDE		

1.1.3 Ekintza

Enpresa ekintzaileei diru laguntzak e mateko ordenantza aplikatzea

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.1. Ekimen ekonomiko berriak sustatzeko programa		
Deskribapena	Ekintza ekintzaileei diru laguntzak emateko udal ordenantzaren aplikazioa mantendu eta bultzatu nahi da, zabalkunde handiagoa eginez, bereziki ekimen horiek sustatzeko prest egon daitezkeen sektore interesatuenean artean: gazteak, emakumeak, enpresari autonomoak,...		
Lehentasuna	Altua	Burutzeko/ezartzeko epea	Laburra; 0-1 urte
Periodikotasuna	Jarraitua		
Balioetsitako kostua	Aldakorra, eskaeren arabera.		
Adierazleak	3 adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Burutzeko kontrola	Hasita		
Burutzeko ardura	AYTOA		
Finantziazioa	AYTOA		

1.1.4 Ekintza

Tokiko merkataritza dinamizatzeko PERCO bat egitea

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.1. Ekimen ekonomiko berriak sustatzeko programa		
Deskribapena	Egun Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia egiten ari da; aipatu egitasmoan udalerriko merkataritza dinamizatu eta finkatzeko jarduera-lerroen multzo bat egonik. Geroago, bertan biltzen diren neurriak eta ekintzak pixkanaka abian jartzeko asmoa izango da, ondoko hauen elkarlanarekin: Udala, merkataria eta eragile sozialak eta ekonomikoak.		
Lehentasuna	Altua	Burutzeko/ezartzeko epea	Laburra; 0-1 urte
Periodikotasuna	Jarraitua		
Balioetsitako kostua	Aztertze zain		
Adierazleak	3 adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Burutzeko kontrola	Hasita		
Burutzeko ardura	AYTOA, ASEL, Merkataria elkarteak		
Finantziak	AYTOA.		

1.2.1 Ekintza

Udal lanak egiteko prestakuntza eta kontratazioen bitartez lan merkatura barneratzea (Auzolan Programa, Eskoriatzarekin elkarlanean)

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.2. Sektore ahulenei bideraturiko enplegu sustapen programa.		
Deskribapena	Programa hau ondoko pertsoneri zuzenduta dago: Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailarekin gizarteratzeko hitzarmena sinatuta duten langabetuak. Udaleko zereginetan prestakuntza-prozesu bat benetako lan-praktika batez uztartzeko asmoa dago, esku-hartzen duten pertsonen gizarteratze soziolaboralaren aukerak handitzeko helburuz.		
Lehenetasuna	Altua	Burutzeko/ezartzeko epea	Laburra; 0-1 urte
Periodikotasuna	Puntuala		
Balioetsitako kostua	Aztertzeko zain		
Adierazleak	2 adierazlea: Langabezia tasa		
Burutzeko kontrola	Hasteko zain		
Burutzeko ardura	AYTOA, Aretxabaletako Udala, GFA		
Finantziak	AYTOA, Aretxabaletako Udala, GFA		

1.2.2 Ekintza

Aretxabaletako Institutu Publikoan ematen diren Arautu gabeko hezkuntza aktibitateei laguntzak ematen jarraitu

Lerroa	LE.1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATU, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA		
Programa	P 1.2. Sektore ahulenei bideraturiko enplegu sustapen programa.		
Deskribapena	Ekintza honek ondoko helburua dauka: Aretxabaletako Institutu Publikoak garatutako trebakuntza- zein hezkuntza-zeregina laguntzen jarraitzea, trebakuntza okupazionalera zuzenduta dagoena, arautu gabeko jardueretatik abiatuta.		
